

## KOSTUEN EGITURA

Enpresa honek bi kostu desberdinetan banatzen da nagusiki: Kostu orokorrak eta hasierako kostua (beharrezko inbertsioa).

**-Kostu orokorrak:** Gure enpresak funtzionamenduan mantentzeko hainbat motatako kostuak izango ditu: Zuzenak, zeharkakoak, finkoak, aldakorrak...

-Kostu zuzenak: Ordaindu beharreko diru finkoa, gure kasuan, erosi beharreko lurra izango da, gero tximistorratzak eraiki egingo diren lekua. Kokapenaren arabera ordaindu behar den kantitatea aldatuko da, herrialdearen legeen arabera edo beste arrazoiengatik. Tximistorratzen muntaketari dagokionez, lan eskua eta materialak ordaindu beharrekoak dira. Tximistorratzak, gutxi gorabehera 5 tona izango dituztelako, 6.000€ inguru balioko du bakoitzak.

-Kostu finkoak: Denborarekin aldatzen ez diren kostuak dira. Ez da inporta zuzena ala zeharkakoa den, bakarrik balio bera. Horren adibidea, gure enpresa sortzerakoan erabaki behar dugunean zein sozietate mota eraiki, prezio bat edo bestea kostatuko du. Zergak atal horretan sartzen dira.

-Kostu aldakorrak: Talde honen barruan materialen prezioa eta garraiatzearen garestitzea sartzen dira. Materialak eskaera/eskaintza orekaren bidez aldatuko dira prezioz. Batzuetan garestitzen eta beste batzuetan merkatzen. Bestetik, garraiatu beharreko tartek luzeagoak edo motzagoak izango dira, eta hori prezioan nabarituko da. Garraiatzeko materialen edo tresnen pisua handitzean, beste garraio bide handiagoak behar izatean, etab... Aldaketa hauek guztiak kostu aldagarri bat osatuko dute.

-Zeharkako kostuak: Hauek produktu baten ekoizpenean eragina dutenak dira eta beraz ezin dira egokitu produktu zehatz bati.

**-Hasierako inbertsioaren kostua:** Proiektu hau handia izateagatik, beharrezko diru iniciala oso garrantzitsua izango da. Diru kantitate handia behar izango da (lehen zehaztu dugun bezala, gure poltsikotik eta *crowdfunding* metodoaren bidez lortutakoa), baina enpresa finkatzen denean dirua arazo bat izateari utziko dio. Gutxi gorabehera, 4 milioi euro ipini behar izango dira (milioi 1 € kide bakoitza) behar ditugun baliabide guztiak eskuratzeko. Hau da, 4 milioi € + inbertsioak.